**Asko gustatzen zaigu zuk gurekin bidaiatzea. Baina are gehiago gustatzen zaigu zuk seguru bidaiatzea. Jarraitu gure aholkuei.**

**BIDAI ON!**

AUTOBUSERA IGO AURRETIK #1



**Itxaron espaloiaren ertzera hurbildu gabe.** Autobusa hurbilduko da, zu hurbildu ordez.

AUTOBUSERA IGO AURRETIK #2




**Noiz iritsiko da autobusa?** Zuk zeuk kontsultatu aplikazioan, webgunean, pantailetan edo geltokiko QR kodeetan.

AUTOBUSERA IGO AURRETIK #3




**Geltokian aspertuta?** Aprobetxatu autobusera igo aurretik zure garraio txartela edo dirua prestatzeko.

AUTOBUSERA IGOTZEKO #4



**Itxaron autobusa gelditu arte eta gero hurbildu autobusera.** Eta gogoratu, ezin zaitugu geltokitik kanpo hartu.

AUTOBUSERA IGOTZEKO #5



Denoi gustatzen zaigu ordena. **Igo aurreko atetik, baliozkotu zure txartela eta joan kontuz atzealdera.**

AUTOBUSERA IGOTZEKO #6



**Oso irisgarriak gara!** Arrapala aktibatzea behar baduzu, jakinarazi gidariari. Laguntzailea baduzu, hark zurekin egon behar du.

AUTOBUSERA IGOTZEKO #7



**Haurtxoa autobus barruan.** Igo haur kotxea erdiko atetik eta jarri martxaren kontrako noranzkoan. Lotu segurtasun uhala eta ez ahaztu frenoa jartzea.

AUTOBUSERA IGOTZEKO #8



**Haur kotxea daramazu?** Igo aurrerantz eta jaitsi atzerantz. Ezin errazagoa da!.

AUTOBUSAREN BARRUAN #9



Ez zaitzala lotsarazi. **Eserleku berdeak mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatuta daude.**

AUTOBUSAREN BARRUAN #10



Aterki bat ez da arriskutsua. Aterki solte bat autobusaren erdian, bai. **Ez oztopatu igarobideak.**

AUTOBUSAREN BARRUAN #11



Ez zaitzala ezustean harrapatu. **Zutik bazoaz, helduta joan beti.**

JAISTEKO #12



Ez dadila zure geltokitik igaro han gelditu gabe. **Eskatu geldialdia** behar besteko aurrerapenez.

JAISTEKO #13



Akziozko filmak gustuko badituzu ere, **hobe duzu ateak ixten ari direnean ez jaistea.**

JAISTEKO #14



Kalkulu txar batek ez diezazula eguna hondatu. **Zaindu autobusaren eta espaloiaren arteko distantzia.**

# 14 Tip zure bidaia top izan dadin

DBUS PREBENTZIO KANPAINA

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN d·bus wtw